



KOKAPENA

Deba

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Debako Udala

DENBORA-ERREFERENTZIA

2006

EKINTZA

Herriko ikasleen laguntzaz, hondakinak murrizteko sentsibilizazio kanpaina burutu zen Deban.

LORPEN NAGUSIAK

Kanpaina honen helburua hondakinak murriztea izan zen, baina nahiz eta helburu hori ez lortu, hondakinen birziklapena nabarmen hobetu da.

ZAILTASUNA (1 Txikia / 2 Ertaina / 3 Altua)

1

GIZARTE ERAGINA (1 Txikia / 2 Ertaina / 3 Altua)

3

DATU INTERESGARRIAK

Deskribapena

Eskolako Agenda 21 proiektuan parte hartzen duen Mendata BHI, 04/05 ikasturtean hondakinak landu zituzten eta Kontzientziazio kanpaina bat egitea proposatu zioten Debako Udalari

Idea horri jarraituz, Triptikoa edo liburuxka bat aterako zen eta horren irudiak ikasleek egin zituzten. Irudiak erabili nahi ziren gauzak azaltzeko, era sinple batean mezuak emateko.

Liburuxkaren atalak:

- Sarrera: Gero eta hondakin gehiago sortzen dela azaldu herriko datuekin kontrastatuz.
- Hondakinen sorrera gutxitzeko aholkuak: murriztu, berrerabili eta birziklatu.
- Aholkuak jarraituz lortuko diren onurak.

Gurpilari dagokionez, Jendeak hondakin bakoitza nora bota behar den jakin zezan gurpila diseinatu zen eta informazio hori eskuragarri edukitzeko helburuarekin, imana jarri zitzaion.

Material hau kanpainan parte hartzeko informazioa ematen zuen gutunarekin bidali zen etxeetara.

Kanpainara atxikitzen zenari gaika jasotzeko etxeko edukiontzi bat oparitu zitzaion.

Erosketak, birziklatzeko eta murrizteko ohiturei buruz Informazioa bildu zen kanpainan parte hartu zutenei alde zuzenetik eta ondoren egindako inkestaren bitartez.

Lorpenak:

- Kanpainan parte hartu duten familien portzentaia nahiko altua izan da, %7. 2004an Deban burutu zen GAP programan parte hartu zuten familien batez bestekoaren antzekoa.
- Kanpainaren goiburua izen dena, hondakinen murrizketa, ez da inolaz ere gertatu. Gero eta hondakin gehiago sortzen da; hori bai, gero eta gehiago birziklatzen da.
- Jendeak erosotasunera jotzen du erosketak egiterako orduan, bilgarri asko dituzten jakiak eta bestelakoak erosiz. Hala ere askotan ez dago beste aukerarik merkatuan.
- Argi dago jendeak kanpainaren ostean gehiago birziklatzen duela eta hondakin mota gehiago: kartoia eta papera, ontziak, pilak eta beiraz gain, etxean sortzen diren hondakin arriskutsuak ere gero eta gehiago birziklatzen ditu: fluorezenteak, mobilak, tresna elektrikoak,
- Kontzientziazioa falta da oraindik, arlo guztietan gainera: merkataritzan, ostalaritzan, elkarreteetan, lantegi txikietan, erakunde publikoetan, ...
- Etxebizitzetan zera gertatzen da: badaude familia batzuk oso kontzientziatuak daudenak, eta birziklatze eta hondakinak murrizteko aholkuak aurrera eramaten dituztenak; beste batzuk ordea gutxi edo ezer ere egiten ez dutenak.
- Jendeak murriztu eta berrerabili hitzen esanahia gutxitan jartzen du martxan, hondakinak ondo birziklatuz gero, nahikoa dela uste du.
- Hala ere badaude batzuk tetrapack-ontziak berrerabiltzen dituztenak: hauek ireki eta garbitu eta gero jakia horiekin bildu izozgailuan gordetzeko.
- Jendeak ez daki hondakin batzuk birziklatzera nora eraman: plastikozko eskularruak, zartagina, aerosolak, erradiografiak, fluorezenteak, portzelanazko baxera,...e.a.
- Informazio falta nabaritzen da. Debarreneko Mankomunitateak egin duen azkeneko informazio kanpaina 2005ean izan zen, garbigune mugikorrean jasotzen diren hondakinak azalduz.
- Udal edo mankomunitateengandik herritarrek jasotzen duten erantzuna askotan ez da nahikoa, eta horrek, hondakinen birziklapenari uko egitea dakar batzuetan.
- Herritarren proposamenak biltzeko erreminta oso baliagarria izan zaigu inkesta. Askok izan dira herritarrek hondakinen bilketa zerbitzua hobetzeko egin dituzten proposamenak: 98. Hau da 0.74 proposamen familia bakoitzeko. Dagoeneko hauen laburpena mankomunitateari bidali zaio eta honek aztertuko dituela esan du. Badira eskakizun batzuk bete direnak ere.
- Kanpainari buruz, inkestatuen %72k kanpaina honek hondakinen arazoari buruz herritarrek kontzientziazteko balio izan duela dio, eta %79ri baliagarria izan zaio oparitutako edukiontzia.

Harremanetarako:

Debako Udala

Agenda 21 Teknikaria - Idoia Alvarez

Telefonoa: 943.192.840

Emaila: hondartza@deba.net